



JAIME KEREXETA
(1918-1998)

Egilea:

MIKEL ATXAGA

BIZITZAKO URRATSAK

Jaime Kerexeta Gaillaiztegi, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ziren urte berean, 1918ko uztailaren 31n, San Inazio egunez, jaio zen Elizburu kalean, Elorrioko herriak ugari dituen etxe eder horietakoan. Hortxe egin zuen bizitzaldirik luzeena ere, San Agustin parrokiako apaiz lanei eta euskararen ikerketari eta euskarazko liburugintzari emana. Eta hortxe, bere jaioterrian, hil zen 1998ko abuztuaren 4an.

Adrian Kerexeta Sagastibizkarra eta Joakina Gaillaiztegi Arantzibia senar-emazteek sei seme-alaba izan zituzten: Jose Maria eta Maria Teresa (Jaimeren bataioko aitabitxi eta amabitxia), Adrian Maria, Maria Pilar, Kontxa eta Jaime. Etxe oneko kristau familia zenez, seietatik hiru erlijioso sartu ziren: Adrian Maria, frantziskotar; Maria Pilar, karmeldar; Jaime, etxeko ttikiena, apaiz.

Horretarako Arratiako Gaztelu-Elexabeitian hasi zituen apaizetarako ikasketak Jaimek. Gazterik ekin zion musika ikasteari ere Bilboko Kontserbatorioan, 1945ean amaitu

baitzuen musikari zegokion karrera. Apaiz, berriz, 1947an ekainaren 22an egin zen. Meza berria, bestalde, Arantzazun eman zuen, urte horretako uztailaren 13an, Adrian Maria anaia frantziskotarrak lagunduta.



Jaime Kerexeta abade egin berria.



Jaime Kerexeta, Adrian eta Joakina gurasoekin.



Gaztaroan etxeoekin, 1923an, egindako argazkia.

Aurretik, ordea, Teologia ikasketak burutu behar zituen. Hain zuzen, Teologia ikasteari Comillasen ekin zion, gerra ondoan, 1939an. Baina ikasurteren bat edo beste Burgosen eta Sevillan ere egin zituen: bertako «Schola Cantorum» izeneko abestaldearen zuzendari izateko, batean; organojole izateko, bestean. Teologiako hirugarren urtea, berriz, Tui-ko seminarioan egin zuen, musika irakastera eta katedraleko organoa jotzera eraman baitzuten 1945ean. Lehiaketa gainditu ondoren, 1947ko urtarrilaren 2an irabazi zuen behin betiko katedraleko organojole plaza.



Meza berria Arantzazun eman zuen 1947ko uztailaren 13an. Anaia frailearekin eta beste senide batzuekin egun hartan egindako argazkiak.

Herriminak, ordea, ez zion Galizian denbora askoan irauten utzi. Eta nahiago izan zuen Tui-ko katedralean organoa jotzen jarraitzea baino Urkiolakoa astintzea, San Antonioren ohoretan eta hara biltzen ziren euskaldunen gozamenerako. 1952-1956 bitarteko txangoa egin zuen Urkiolan. Lau urteren burura Elorrioko San Agustin elizako apaiz laguntzaile izendatu zuen-eta Bilboko gotzainak.



Jaime Kerexeta abadegaia etxeko balkoian, eskuan liburua duela.

Pozik zen Jaime bere sortetxean, bere arreba Maria Teresa eta beronen familiarekin. Baina lau urte eskas iraun zion etxetik hurbileko bere gogoko lanak. Kerexeta, jakina, ez zen herritarren eta herriaren arazoei iskontxo egiten zien apaiza. Giza eskubideen eta Euskal Herriaren nortasunaren eta euskararen etorkizunaren kezka eta ardura handia zituen. Kezka horrek bultzaturik salatu

4

zituen 1960an, beste 339 apaizekin batera, askatasunik eta giza eskubideekiko begirunerik eza, euskararen kontrako eraso eta Elizaren erregimenarekiko gehiegizko lotura. Gotzainari eskuz esku gutun hura emateko adorea izan zuen, gainera.

Horren ondorioz, lurretarako izendatu zuen Gurgipide gotzainak. Baina denbora gutxirako. Lurretan urtebete igaro ondoren, Elorriora itzuli baitzen berriro, Maria Teresa arrebaren ondora, buru-belarri euskal gaiak ikertzeko eta lantzeko eta kristau herriari eta abadeei euskarazko eliz liburuak eskaintzeko. Izan ere, Kerexeta ez zen salaketa hutsean geratzen zen gizona. Nahiago zuen,

langile porrokatua zenez, euskaldungoak zeuzkan premiei erantzutea. Idatzi ere idatzi zion apezpikuari, «parrokiako lanetarako baino abilagoa nauzu euskal gaiak ikertzeko eta idazteko».

Hala ere, Jose Maria Zirardak, Gurgipideren ondorengo gotzainak, San Agustin parrokiako erretore izendatu zuen 1969ko urtarrilean, ordurarte erretore zen Emiliano Iturraran Ondarroara eraman baitzuen. Hain zuzen, 1984ko uztailaren 12an utzi zion erretoretzari Jaimek, erretiroa harturik.

Lehen, apaiz lanetatik kanpoko txolarteak bakarrik eskaintzen bazizkion euskarari, hemendik aurrera,



Etxeko loba eta ilobekin (1995).

egunak dituen ordurik gehienak eskaintzen dizkio, hamalau urtez, 1998ko abuztuan hil zen arte. Horregatik da bere bizitza luzea bezain oparoa: hirurogeiren bat liburu, handi eta txiki, onduak eta argitaratuak dituenez.

Bere lan horien aitortzen dira, noski, lortu dituen izendapenak, ohoreak eta sariak: euskaltzain urgazle Euskaltzaindiak, 1964an; «Agirre Lendakaria» Saria, 1975ean; Euskalerriko Adiskideen Elkarteko ohorezko kide, 1985ean; Ekuadorko Quitoko «Amigos de la Genealogía» elkarteko ohorezko kide, 1986an; Euskal Itzultzaileen Elkarteak Ohorezko Kide, 1991n; «Urrezko Kaioa» urte horretan bertan; eta ohorezko euskaltzain, 1998an.



Besteak beste, EIZIE, Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kide-agiriak jaso zituen. Knörr eta Lizundiaren eskutik jaso zuen Ohorezko Euskaltzain agiria, 1998an.



EUSKALTZALE ETA MUSIKALARI

Erbesteko txango luzean ez zuen etxean eta herrian ikasitako euskara erabat galdu. Urrutian bizi beharrak piztu zizkion herrimina eta euskaltzaletasuna. Galiziako Tui hiri lasaian biziro ekin zion euskara ikasteari, Azkueren *Morfología Vasca* eta Altuberen *Erderismos* lagun zituela. Kerexetak bizitza osoan miretsi eta eskertu zituen bi maisu handi hauek.

Beste asko bezalaxe aldizkarietan hasi zen Jaime Kerexeta euskaraz idazten, Sabin Muniategik bultzata. *Egan, Euzko Gogoia, Zeruko Argia, Olerti, Jesusen Biotzaren Deia, Agur, Zer* eta abarretan idatzi zuen,

Arantzibia bere laugarren abizenaz baliaturik, gehienetan.

Olerkigintzan, berriz, euskaltzaletasunak eraginda hasi zen. «Euskeraganako maitasunak erabili nau; bai, aldarrika diñot: argitara damodazan lerro oneik, arek sortu ta eragiñak dozuz» aitortzen du *Orbelak* liburuaren hitzaurrean.

Euskara ez ezik, musika ere barru-barruan bizi zuen Kerexetak. Oso gazterik egin zituen musikari buruzko ikasketak. Eta oso gazterik ekin zion irakasteari, abesbatzak sortzeari eta organoa jotzeari. Eta euskaraz erabili zuen lehenengoetako gaia ere musika izan zen. «Ereslari batzuen oldozkunak», «Frederic Chopin» eta



«Ereslari erromantikuen aldia» argitaratu zituen *Euzko Gogoa* aldizkarian, 1954 eta 1955ean.

Bistakoa denez, Chopinzale agertzen da lan hauetan. «Ez diñot besteak baiño gehiago balio dauanik, atsegiñen izango yatzula baiño... Bein baiño geiagotan esan dot neurekotan: Al izango ba'neu nik Chopin'en antzerakoa izan, aren eskuak euki, aren adorea lortu!» amesten du *Euzko Gogoa* aldizkarian idatzitako bigarren idazlanean.



Jaime Kerexeta musikari eta Chopin-zale handia zen: Tuiko katedraleko kalostran eta organoan, 1949an, eta Chopinen irudiaren ondoan, 1997an.



IKERLE ETA BIDE GILE

Euskal gramatika, hiztegia, abizenak, armariak eta abar arakatu eta ikertu zituen, azken urteetan. Ordenadorea tresna egokia da lan hauetarako. Jaimek, pianoan, organoan eta idazmakinan ohitua, laster ikasi zituen ordenadorearen trikimailuak.

Mazmarroizti deitzen zion «heraldica» oso gogokoa zuen Kerexetak. Hamaika artikulu eskaini zizkion gai horri *Euzko Gogoa*-n, hiru urteren buruan, 1956, 57 eta 58an.

Alor honetan burutu duen lanik mardulena, hala ere, bost liburukiko *Diccionario Onomástico y Heráldico vasco* da, 1970-74 bitartean argitaratua, 26.000 abizen ikertuz. *Diccionario euskérico* kaleratu zuen ondoren, 1977an. Bereak dira *Vascos en Colombia*, *Casas Solariegas en Bizkaia*, *Linajes y Casas Solariegas de Elorrio*, *Linajes y Casas de Gipuzkoa* eta *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*. Baina 1990ean argitaratu zen *Diccionario AMAIA de la Lengua Vasca*, 1.143 orrialdeko hiztegi mardula, zuzentzen eta gidatzen egin zuen lana ez da txantxetakoa.

Argibide eske joaten zitzaizkionentzat ere adeitsua zen Jaime Kerexeta. Adierazgarria da Augustin Zubikaraik egiten dion aitorpen hau: «Jakintsu andien antzera, bere bostean ebillan. Ori bai, iñori bere laguntasunik ukatu barik. Euskera kontuan lez, armarri, ikurdi, genealogi eta antzeko gaietan. (...) Orretan askok jotzen dabe beragana. Batzuk nik aholkatuta, beste batzuk nik jakin barik nire izena artuta. Ba dakit danei erantzun izan dautsela».

Gramatikazale porrokatua ere bada Jaime Kerexeta. Edonorekin izan ohi zituen eztabaida eta jardunaldi luzeak gramatikari buruz. Zaletasun hori ederki nabarmendu zitzaion Aita Pi karmeldarraren *Kristoren Antz-bidea* eta Juan Bautista Ibargutxiren *Otoia* liburuei *Euzko Gogoa*-n egin zien kritikan.

Baina ez zen teoria hutsean geratu zen gizona. Gehienik, erlijio gaiak erabili bazituen ere, euskal gaiak plazaratzen ere egin zuen ahaleginik. Luis de Castresanaren *Iparragirre'ren Bizitza* eta *Gernikako beste Arbola* itzuli zituen, 1978an eta 1979an. Hurrena, 1984an, Bohorquezen *Bolibar*. Zenbait euskal idazleren lanen argitalpenak ere paratu zituen, bestalde: Aita Basaberen *Gogarteak*, 1963an, Errose Bustintza *Mañariko*-ren *Ipuinak*, 1990ean, eta Xabier Goitiaren *Eusko Umeak Atzerrian*, 1991n.



9

Kerexetak euskal hiztegia, euskal abizenak, armariak eta abar ikertu zituen.



«ARANTZIBIA» OLERKARIA

Idazle bezala 1954an plazaratu zen Jaime Kerexeta, *Euzko Gogoa* aldizkarian, *Arantzibia* amaren bigarren abizena izengoitia bihurtuz. Izengoitia erabiltzeko ohitura handia baitzen. Aldi berean, ordea, kritikaren eta zentsuraren beldur ere izan zitekeen izen-deitura ezagunez agertzeko. Dena den, apal eta lotsati antzean plazaratzen da Elorrioko poeta, bere olerkiak «xume eta mengel, edonok egin daikezanak» direla uste baitu.

Hamalau olerki argitaratu zituen *Euzko Gogoa*-n: «Agur ixarrak», «Arantzazu, Arantzazu...!», «Ardi bati», «Aspaldikoa», «Edurtzan», «Ezpaia», «Igone», «Ipar-aizea», «Memarijan», «Udabarrian», «Udagoi gau batez», «Urki-artean», «Udazken-gabea» eta «Zure ondoan». *Txistulari*, *Zer*, *Olerti* eta *Agur* aldizkarietan, berriz, bost: «Edurne, Txistulari Alkarteari», «Gabeko bederatzietan», «Il, baiña bizi», «Jasone» eta «Uso bake-geznariok».



Jaime bere lobekin mendiaz gozaten.

Bere lehen liburuak ere olerkiz osatutako liburuak izan ziren: *Orbelak*, 1958an; *Bitargi*, 1959an. Manuel Lekuonak egin zion hitzaurrea *Orbelak* liburuari, «Arantzibia»ren poesiari «euskal-usaia dariola lau aldetatik» azpimarratuz. Santi Onaindiak egin zion *Bitargi*-ri. «Igaz mendi, ira, oroldi-usainez blei-blei etorkigun elorriotar olerkari gaztea; aurten barrukoago datorkigu, lirika poesiaz gaiñezka, mintzo erne, ugari ta atsegiñez». Eta Lizardi, Orixe, Zaitegi, Lauaxeta, Gaztelu eta abarren artean sailkatzen du Onaindiak Kerexeta.



11



Jaimek bazekien familiarekin ere ordu goxoak bizitzen.

12

Badu maitasun olerki ederrik eta finik. Maite-kanten artean hauxe berexi zion Onaindiak hitzaurrean:

Izarren argia dozu
zure begi urdiñetan;
izarren soiñu biguna
maillubizko ezpainenetan

Betegarririk gabe eta neurkeraz ongi moldatuak burutzen ditu, bistan denez. Baina oso bakanak diren neurriak ere erabiltzen ditu inoiz, zazpi-zortzikoa, adibidez.

Zortzi egunez
ekin eutsen andrak
otoiari;
ta zortzi gauez
odeiak –samurki–,
negarrari.

Gaia gaurkotasunez jantzia izan arren, badaki Arantzibiak egitura edo molde zaharrean ere, zahar-kutsuz, bere poesia borobiltzen.

Ez dau iñoiz ezautu
udabarriak ustelik;
iñoiz ez da ezautu
maitasun bako gazterik.

Ahapaldi borobil eta beterik ere aurkitzen da elorriotarraren olerkietan, jakina. Halaxe da honako hau:

Alako baten, txistu min batek
Iratzartu dau goizeko isila:
Azkon zorrotz bat arin-aringa
Urten da, egaz, norbaiten bila.

Egia esan, harrera ona egin zion orduko kritikak. «Hartu dut zure liburuxka txairoa ta bai gozo irakurri ere. Opila bezin gozo ta gustagarri aurkitu dut» aitortu zion Villasantek, *Aranzazu* aldizkarian.

Jokin Zaitegi *Euzko Gogo*a-ren zuzendariak goi mailakotzat du Kerexetaren poesia. Hala idatzi zuen *Udalaizpe* izenordez, 1959an: «Belarri-biotzetan samur, goxo eta gogor iosi eta itsatsi oi diran olerki errex, arin bigunak... Orainaldi ontan bizkaieraz nabarmentzen diran olerkari gorengoan artean gorengoetariko bat dugu “Arantzibia”, nonbait: dana neurri, dendu ta musika».

Koldo Mitxelenak, ohi bezala, begi argiz irakurri zituen Kerexetaren olerkiak. *Orbelak* eskuratu orduko igerri zion Mitxelenak «Arantzibia-ren doinuari: berria dela eta batez ere bere-berea duela. Hiru sailetan berezi ditu olerkiak, beti labur eta txairoak: Izadikoak, Maitezkoak, Biozkadak. Gaiak, ikusten duzunez, nonnahikoak izanik, euskal-olerkarien kuttunetakoak dira. Baina ez dirudi hemen, inolaz ere, betiko leloa entzuten ari garenik; betiko leloa bada ere, Arantzibia-ren eskuz antzaldatua ageri baitzaigu. Sorgindua ere esan daiteke, edertasun-sorginkeriaz, sorginak eta sorginen erregina ezpaitabiltza olerki

hauetatik urruti: Anbotoko Anderea
Batzarre-buru nagusi».

Anbotoko Anderea
Batzarre-buru nagusi;
Bolu ondoko zelaietan
Sorgin oztea nabasi.

Bitargi-ri ere ez zion muzinik egin errenteriar jakintsuak: «Era ikasian eta jakintsuro, herri-poesiaren bideetara jo du itxuraz Kerexetak eta zentzuen bitartez atzematen duena da nolazpait ere bihotzeko izkutuen argibide eta ezaugarri. Elkarren ondoan datoz irudi biziak, esaldi laburretan, ur-hegiko lizar nahiz makal lerdenen andanak bezala. Zeruan eta olerkariaren gogoan ez da gelditzen giroen eta orduen dantza arina: goizeko eguzki argia, laino euritsua, ilunabar xamurra, izartxoekin keinua».

Zahartzaro aldera, 1980an, berrargitaratu zituen liburu bakar batean, euskaraz eta gaztelaniaz, lehengo biei *Udazken* izenekoak gehituz. XVI-XVII. mendeko bizkaierazko maitasun kantu bat ere badakar liburu horretan. Azkenik, bere poesiaz Manuel Lekuonak, Koldo Mitxelenak, Villasantek, Ibiñagabeitiak eta abarrek argitaratutako iritziak biltzen ditu.



14

JAUNGOIKO-ZALE-REN JARRAITZAILE

Elkarte bat izan zen lehenik *Jaungoiko-zale*: apaiz elkarte. Bizkaian kokatua bazen ere Hego Euskal Herriko apaizak biltzen zituen; bistakoa denez, bizkaitarrak gehienbat. Orduan, jakina, Gasteizko elizbarrutian elkarturik zeuden Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa eta errazagoa zen apaizen arteko elkartasuna ere, Gasteizko apaizgaitegitik elkarren ezagunak eta lagunak suertatzen baitziren, gainera. Dena den, mila apaiz baino gehiago zituen elkarte bilakatu zen berehalaxe, euskaldun fededunei euskarazko bitartekoekin laguntzeko asmoz.

Euskal apaizen arteko ezagupide eta elkartasun hori ezabatzeko zatitu zuen Francok, 1950ean, Gasteizko elizbarrutia hirutan; Bilbon eta Donostian apaizgaitegi berri bana eraikiz. Horregatik utzi zituen Gasteiz eta Bilboko elizbarrutiak Burgoskoari loturik eta Donostiakoa, Iruñekoari. Eta Francok sakabanatu zuena ez du Erromak oraindik batu.

Jaungoiko-zale, beste landare asko bezalaxe, gerrateko suteak eta ondoko izozteak galdu zuen betiko. Hala ere, haietako zenbaitek gerora ere jarraitu zuen lanean. Izpiritu haren ondorengorik eta jarraitzailerik ere izan da: Jaime Kerexeta ezagunena eta emankorra, bera izan baita bere kabuz eta bakarka jardun duen azkenetakoa.

Olerkari, itzultzaile eta eliz liburuen egile eta argitaratzaile izan zen Jaime Kerexeta. Eta ez garai erosoetan. Larderiarik gogorrean heldu zion aurrekoen bideari, arriskuak arrisku. 36ko gerra ondoan, sermoiak ere erdaraz egitera behartu nahi izan zituzten apaizak. Euskarazko dotrinak eta eliz liburuak ere ezkutarazi zituzten. Isilka eta ezkutuan berrargitaratu bakarrik eskura zitezkeen.

Orixeren *Urte Guziko Meza-Bezperak* liburua iparraldean argitaratu behar izan zen, 1949an. Argitaratzeko baimena ere ez zuen hemengo gotzainak eman, Clement Mathieu Akizeko apezpikuak baizik. Hala ere, han argitaratzea errazagoa zen, muga itxian isilpean pasatzea eta hegoaldean isilpean banatzea baino.

KATEAREN AZKEN MAILA

Gure euskal literaturaren hutsuneak nabarmenak dira. Koldo Mitxelenak ongi adierazten duen bezala, «urria, berankorra, ñaño-antxekoa izateaz landa, badu beste makur nabarmena: txit mugatua izan dela, erlijio edo hobeki eliz arazoetara iraulia gehienbat luzaroko mendeetan».

Baina literaturarentzat akats dena eta beste jende ikasiarentzat lotsagarri, elizgizonentzat merezimendu goraiagarri suertatzen da. Irakasle, mediku, legegizon eta abarrek bakoitzak bere gaiak euskaraz eman balizkigu, euskara idatzia aberatsagoa izango baikenuen eta euskal literaturak ez zukeen aldera karga hori izango.

Elizgizonek, jakina denez, salbuespenak salbuespen, kristau euskaldunetikiko harremanetan euskara erabili dute: sermoiak egiterakoan,

dotrina irakasterakoan, aitortzak entzuterakoan, elizkizunetako otoitz eta kantuetan eta jendearekiko harremanetan. Eta lehen latinez ematen ziren mezak ere euskaraz ematen hasi ziren, Vatikanoko Bigarrenak liturgiarako herri hizkuntzak hobetsi zituenean.

Elizgizonek, bidezko denez, batez ere beren eginkizunetarako landu dute euskara. Bakoitzak bere lapikoari egiten baitio su, Koldo Mitxelenaren hitzak erabiliz, «erlijio edo hobeki eliz arazoetara irauli dira gehienbat» elizgizonak: Biblia, sermoiak, dotrinak eta abar euskaraz idatziz, hau da, edozein apaizek bere lanerako behar zituen bitartekoak euskaraz eskainiz. Beste batzuen utzikieriaz literaturak duen hutsune hori, ordea, ez da dagoenari muzin eginda konponduko, dagoentxo horretan dauden altxorrik bilatuz eta jasoz baizik.

Jaime Kerexetak, abade zenez, olerkigintza ia erabat alde batera utzirik, liturgiarako, elizkizunetarako eta kristau eta apaizen laguntzarako beharrezkoak ziren liburuak burutzeari ekin zion. Premia ere halakoxea baitzen. Izan ere, gerrateak eta ondorengo ekaitzak ezkutarazi zituen lehengoak eta berriak egiteko bideak debekatu. Hutsune hori bete nahi izan zuen Elorrioko abadeak.



16

BIBLIA EUSKARAZ

Biblia da kristauen oinarrizko liburua. Hala ere, Trentoko Eliza Katolikoak ez zuen bere kristauen eskuetan jarri nahi izan, behar bezala ulertzeko gaitasunik ez zutelako. Horregatik, bitxia bada ere, Joanes Leizarraga apaiz protestanteak euskaratu zuen lehen aldiz *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571n, Albretoko Joana erreginaren aginduz.

Geroztik, Duvoisin kapitainak *Testamentu zahar eta berria* argitaratu zuen lapurteraz, 1859an, Bonaparte Printzearen laguntzaz. Ehun urte geroago, berriz, Raimundo Olabide josulagunak euskaratutako *Itun Zar eta Berria* argitaratu zen, 1958an, aita Patxi Etxeberriaren eskutik.

Duvoisin kapitainak bezalaxe, Arrigorriagako aita Uriarte frantziskotarrak ere euskaratu zuen Luziano Bonaparte printzearen aginduz. Baina, Duvoisinena ez bezala, argitaratu gabe geratu zen.

Argitaratuta zeuden Leizarragarena, Duvoisinena eta Olabiderena zailegiak gertatzen ziren Bizkaiko

euskaldunentzat. Eta Jaime Kerexeta lotzen zaio lan horri. Beharizan horri erantzuten emango ditu bere bizitzako saiorik luzeenak eta jorienak. Itun Berriarekin hasi eta Biblia osoa bizkaieratu arte ez da geldituko.

Loreak ihintza bezala hartu zuten bizkaitarrek 1960an argitaratu zuen *Jesuskristo Gure Jaunaren Barri Ona*. Ahalegin berezia egin behar izan zuen hor Kerexetak, eskolan euskara debekatua zen garaietan hazitako kristau eta apaizak gogoan. Eta garbi aitortzen dio Mitxelenak ahalegin hori: «Egilearen izenak bakarrak aski esaten du hemen erabili dituen arretaz eta txukuntasunaz».

«Ebanjelio alkartuen itzulpen honek zabalkunde handia izan eban: aspaldiko egarri bizia asetzero etorren ur garbia zalako. Ebanjelioak bizkaieraz irakurteko ez geunkan besterik *Argi Donea* baino, eta honek domeketako ebanjelioak baino ez ekazan. Bai abadeok, bai kristinau herriak pozarren hartu genduan Kerexetaren itzulpen hau: edozeinek neke handi barik ondo ulertzeko euskera garbian egoan bizkaieratuta»

aitortu zion hilondoan Karmelo Etxenagusia gotzain laguntzaile eta euskaltzain urgazleak Euskaltzaindian egin zuen hitzaldian. (*Euskera*-XLIV-1999, 1).

Hortik aurrera etenik gabeko emana du Jaime Kerexetak, kargurik gabe zigortua dagoenez, egun osoa bere gain baitu. Bibliaren inguruko dozena bat liburu idatzi zituen gutxienez.

Zirardak, 1969an, San Agustin parrokiako erretore izendatu arren, izan zuen euskarazko bere lanekin aurrera jarraitzeko astirik eta adorarik: *Apostoluen Egiñak* (1961), *Apostoluen Egiñak eta Idazkiak* (1965), *Didaje edo Amabi Apostoluen irakaspena*. *Apostoluen irakaspena* (1965), *Jesukristo Gure Jaunaren Barri Ona* (1966), *Gure Salbaziñoko Egintza* (1972), *Alkartasun Barria* (1972), *Ebanjelio Alkartuak* (1973), *Itun Barria* (1974), *Eliz-Guraso Apostolikuak*, «Jose Antonio Agirre Saria» irabazi zuena (1975).



Euskal gaietako zenbait itzulpen: Iparragirre, Gernikako arbola, Berri-Otxoa eta abar.

Erljiioari buruzko beste zenbait liburu ere argitaratu zuen elorriotarrak: *Berrio-Otxoa* (1988), *Kenpis* (1989), *Kristau-Gaiak* (1995) eta *Escrivaren Bidea* (1995).

Eta Testamentu Berria euskaratua zuenez gero, zergatik ez euskaratu Testamentu zaharra ere? Edonor ikartzeko moduko lana da hori dena itzultzea. Baina Kerexetak ez du atzera egingo, bere lagunak ez ezik, Antonio Añoveros bere gotzainak ere eskatu diola jakinik, gutxiago. Inork uste baino lehenago itzuli ere. 1976rako kalean zen *Euskal Biblia*.

Geroztik, Liturgi batzordeak euskaratutako *Itun Berria* eta katolikoek eta protestanteen artean burututako *Elizen arteko Biblia* argitaratu ziren, 1980an eta 1994an, euskararen aldetik ere batasun ahalegin handia eginez.

ELIZKIZUNAK EUSKARAZ

Vatikanoko Bigarren Kontzilioa arte latina zen Erromako Elizaren hizkuntza, mezetan, sakramentuetan eta otoitz askotan. Hutsune hori betetzeko egin ohi ziren meza denboran bederatziurrenak, arrosarioak eta abar. Jaiera edo otoitz liburuak ere jarri ohi ziren eliztarren eskuetan.

Hogeigarren mendean, ordea, meza bilakatu zen ardatz kristau bizitzarako. Eta apaizak latinez ematen zuen mezari jarraitzeko herriaren hizkuntzara itzulitako meza liburuak ugaldtu ziren. Orixek itzulitako *Urte guziko Meza Bezperak* argitaratu zen, 1949an. Meza hobeto entzuten ez ezik, euskara lantzen ere hamaika apaizgai eta fraidegairi lagundu zion liburu horrek.



Helduaroan senideekin egindako argazkia:
Jose Mari, Maria Teresa, Adrian Maria, Maria
Pilar, Kontxa eta Jaime.

Baina Bizkaiko jendearentzat zail samarra gertatzen zen Orixeren nafar aldeko euskara. Jon Gurutz Ibargutxi abadeak konpondu nahi izan zuen arazo hori, meza liburua bizkaierara itzuliz. Baina, batek daki zergatik, argitaratu gabe geratu zen. Eta Jaime Kerexetak ekin zion, Aita Onaindia lagun, orri batzuetan igande eta jaiegunetako mezen itzulpenak zabaltzeari. Eta osaturik zuen, aldi berean, 1963rako *Eguneroko Meza*, urte guztiko mezak soilik zituen; bezperarik, goratarreen doinurik, erritualik, eliz abestirik eta alboan latinik gabea.

Vatikano Bigarrenaz geroztik, lehen ez bezala, jo zuen Elizak Bibliara, Ebanjelioetara. Eta Eukaristia da, lehen bederatzirrenak, arrosarioak eta debozioak bezala, kristau bizitzaren janari. Jaime Kerexetak horiexek nahi ditu jarri apaizen eta kristauen eskuera: Biblia, Ebanjelioak, meza.

Eta asmatu egin zuen. Saldu zituen 5.000 aleak baino hobeto inor gutxi mintzo daiteke meza liburu horren premiaz eta arrakastaz. Arrazoi zuen Mitxelanak *Eguneroko Meza* aipatzerakoan: «Txalogarria da benetan guztiontzat asmo hau, baita bizkaitar ez garen euskaldunontzat ere, Kristau liturgia liburu honen

bitartez gehiagoren irispidean jarri delako, Bizkaiko euskalki ederra landuaz bidenabar. Eta langileen izenak aipatze hutsak aski adierazten du, noski, lana nolako arduraz eta taxuz burutan atera duten».

Eguneroko Meza argitaratu zen urte berean Kontzilioak liturgia berritzea iragarri zuen, inork espero ez zuen garaian, ezta Kerexetak ere. Alfer lana egin ote zuen beranduegi zebilelako? Inolaz ere ez. Pare-parean suertatu zitzaien meza euskaraz eman nahi zuten Bizkaiko apaizei, itzulpen ofiziala argitaratu bitartean. Kerexetak berak ere bere liburu horrekin eman zuen euskarazko lehen meza Gazetako Andra Mari elizan.

«Domeka ta jaiegunetako irakurgaiak hainbat urtetan entzun izan dituez Bizkaiko gure eleiztarrak Kerexetaren hizkeran; astegunetako eta santuen mezetako irakurgaiak, ostera, oraindino luzeroago, *Irakurgaiak* deritxon liburu lodikote ofiziala 1988. urtera arte ez zalako Bizkaian argitaratu. Horra hor, Kontzilioari eskerrak, Kerexetak eleiztarrendako asmatu eta egindako meza liburu txikia, gero Altarako liburu bihurtu zan urte askotan Bizkaiko abade euskaldunontzat» (Karmelo Etxenagusia, *Euskera*-XLIV, 1999, 1).

Kerexetaren liturgi lanik nagusia hori baldin bada ere, ez da bakarra. Liturgia euskaraz egin zedin baliabide asko eskaini zituen. Besteak beste, *Astegunetako Meza-otoitzak eta Jainko-erriaren otoitza* (1977), *Domeka eta jaiegunetako Ospakizunak Abade Bagarik* (1982), *Elizearen Otoitza* (1982), *Fededunen Otoitza* (1988). Eta abar.



Anizeto Zugasti eta berorrekin batera egindako itzulpenak

ZUGASTIREKIN ELKARLANEAN

Anizeto Zugasti Donostiako Altzan jaio zen 1904ko apirilaren 17an. Hil ere Donostian hil zen 1983ko irailaren 9an, Artzain Onaren katedraleko kalonje zena. Hamalau urteren aldea bazuten ere bikiak ziruditen biek, alde askotatik: organojole eta musikariak ziren biak; poesiaren bidez plazaratu ziren biak euskal baratzera; Zugasti ere parrokiak aldatu zuten, Pasaiatik Soralezera, zigorturik gerraondoan; Francoren larderiaren kontrako agirien sinatzaile izan ziren biak; euskalkien aldekoak ziren biak; kristau eliztarrentzat eta apaizentzat euskarazko liburuak eskaintzen ahalegindu ziren biak, batzuk elkarrekin gainera.

Oso gazterik hasi zen Anizeto Zugasti euskaraz idazten, 19 urterekin, *Euskal Esnalea* aldizkarian 1923an argitaratu zuen *Mendi-mendiyan* olerkiarekin. Geroztik *Bareak*, *Atsegin goxua*, *Udaberriaren izkuntza ixilla*, *Argiaren irratsaioa*, *Maitasun zotiñak*, *Arantzazun*, *Kantari*, *Maite naukala?* *Gezurra!*, *Mendi-bidea*, *Nere maitea*, *Oakit* eta abar argitaratu zituen hango eta hemengo aldizkarietan.

Baina Anizetok, Kerexetak bezalaxe, erlijioeko premiei erantzun nahi izan zien. Jaiera handiz egiten ziren elizkizunetarako, aurrena: *Maiatze'ko*

Loreak (1950), *Jesus'en Biotzaren illa* (1951), *Argi-bidea* (1951), *Garbitokio animen bederatzaurrena* (1951), *Esotzi'ko Andre Mariari* (1952), *Argi-bide txikia* (1954) eta *Amabirjiña Miraritsuari* (1962).

Umeentzat *Kristau-Ikasbideak* euskaratzen ere lan eskerga egin zuen Anizeto Zugastik, euskara erraz eta argikoa baitzen. Jose Maria Setienek hala eskaturik, Zugastik itzulitakoak aldatu ziren euskara batura ere.

Kristau bizitzaren ardatz Biblia eta meza bilakatzen ari ziren garaian, ordea, arlo hauei heldu zien Anizetok, Jaime Kerexetarekin elkaturik. Elkarlan horren fruitu dira, *Itun Berria* (1967), *Salmudia* (1968) eta *Umeen Biblia* (1969). Bestalde, Kerexetak bizkaieratu zuen Zugastiren *Argi-bide txikia* (1965).



LITURGI BATZORDEKO KIDE

Kontzilioak, 1963ko abenduan, meza herri hizkuntzan emateko bideak zabaldu zituenean, herri hizkuntzatat Estatuko hizkuntza ofiziala bakarrik onartu nahi izan zuenik izan zen. Baina Euskal Herriko elizgizon asko ez zegoen horretarako prest: berehalaxe hasi ziren, Kerexetaren eta Orixeren meza liburuez baliaturik liturgia euskaraz ospatzen, baita premiazkoenak euskarara itzultzen ere.

Iparraldekoak hasi ziren aurrena, 1964ko udaberrian, Baionako apezpikuaren oniritziz eta Belokeko beneditarren laguntzaz. Hegoaldean, euskarazko liturgiari ofizialtasuna emateko garrantzitsua izan zen Lorentzo Bereziartua Donostiako gotzainaren jokabidea: Manuel Lekuona buru zuen itzultzaile taldea sortu eta lan hori egiteko agindu zuen. Arabako gotzainak Donostiako elizbarrutiko itzulpenak erabiltzea erabaki zuen. Nafarroakoak Orixeren meza liburua onartu zuen. Bizkaikoak, berriz, Kerexetarena.

Bakoitza bere aldetik hasi bazen ere berehalaxe sortu zen elkarrekin lan egin beharra, argitalpenen gastuak arintzeko eta ahalik eta euskararik berdintsuena egiteko. Erromak ere, jakina, hizkuntza bakoitzean itzulpen

22

ofizial bakarria hobesten zuen. Gainera lehengo testu askok ez zuten balio, Erromak irakurgai, otoitz eta testu berriez liturgia eraberritzeari ekin baitzion, 1968an Euskaltzaindia euskara baturako erabakiak hartzen hasi zen urte berean, hain zuzen.

Giro horretan, zorioneko Lizarra bilakatu zen euskarazko liturgiaren etorkizunerako topaleku. Hor bildu baitziren Arturo Tabera Iruñeko artzapezpikua, Jazinto Argaña Donostiako gotzaina eta Jose Maria Zirarda Bilboko gotzain administratzailea elkarrekin liturgi itzulpenak nola egin erabakitzeko. 1969ko urtarriletik hasita, elizbarruti guztietako taldeak talde bakarrean bildu ziren.

Hala ere, ez zen euskalki guztietan ulergarria gertatuko zen testu bakarria egitea erraza. Euskarari buruzko egoera ere bihurri samarra zen orduan. Jose Maria Setien gotzain laguntzailea izendatu zuten beste gotzainek arazo horren arduradun. Euskararen erabilpenean bi maila berezi zituen horretarako osatu zen batzordearen laguntzaz: bata, liturgiakoa, herri xeheak, entzute hutsez, ulertu beharrekoa; bestea, parroketako kristau ikasbideetan eta gotzainek kristau herri osoarentzat egiten dituzten idazkietan erabili beharrekoa.

«Laburpen gisa esan dezagun, badirela garrantzi berezia duten hiru historia-une: lehenengoa, liturgia euskaraz ere ospatzea erabaki eta itzulpen lanak hasi zirenekoa, 1964an; bigarrena, liturgi lanak elizbarruti guztietakoak elkarrekiko talde bakarrean egitea erabaki zenekoa, 1968an; eta hirugarrena, 1975ekoa, eliz idazti nagusietarako euskararen bi erabilkera hartu zirenekoa, baina liturgian ere baturantzako bideak ahal zen neurrian hartzen zirela» laburbildu zuen Eustasio Etxezarreta Liturgi batzordeko idazkariak, Bergaran 1978an egin zen Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean. (*Euskera-XXIV*, 1978-2).

Eta lan horretako batzordean egin zuten berriro topo Jaime Kerexetak eta Anizeto Zugastik, Baionako, Iruñeko, Bilboko eta Donostiako elizbarrutietako beste elizgizon askorekin batera.



Ordenadore honetan idazten zituen bere lanak Jaimek.

BIZKAIKO EUSKARAREN ZUTABE

Euskarari eman zizkion Kerexetak bizitzako ordurik eta txanponik gehienak. Argitaletxerik eta erakundeen laguntzarik ez zenez, hamaika txanpon jarri zuen horretan. Eta benetan emankorrak izan ziren bere denbora, lana eta txanponak. Joan Mari Torrealdaik *Euskal Idazleak Gaur* liburuan dioen bezala, «erlijio,



Kerexeta, Gaillaitzegi, Sagastibizkarra eta Arantzibia Jaimeren lau abizenen oihalezko irudia.

biblia, liturgia itzulpenetan ez da horren idazle emankorrik izan». Aspaldi samar jarri zion txapela gaur egun gotzain den Karmelo Etxenagusiak: «Euskaltzale guztien txaloak merezi ditu Jaime Kerexetak: Izan ere, 25 urteotan, Bizkaian, nork egin du hark bezainbat lan euskara lantzen eta zabaltzen?»

Lan ugaria eta txukuna, gainera. Asko eta ondo, ez ohi da erraza izan. Baina Kerexetak halaxe egiten du. Behin eta berriz aitortzen dio Koldo Mitxelenak dohain hori. Izan ere, garbizalekeriari eta mordoilokeriari ihesi, euskara zuzen eta egokian burutzen zituen bere lanak. Hil baino bi egun lehenago jaso zuen Ohorezko Euskaltzain izendapenaren agiria, ordainetan. Eta hiletetara bildu zen jendetzak eta aldarean meza emateko, Karmelo Etxenagusia gotzainaren ondoan, elkartu zen apaiz taldeak ere



la bizitza guztian zaindu zuen Teresa arrebarekin etxeko egongelan, 1995ean.

gogotsu eskertu zion Jaime Kerexetari bere bizitza luze eta jorian egin zuen lan eskerga.

«Alde batetik, Bizkaiko Eleizearen –hau da, bizkaitar asko ta askoren– beharriaz erantzun egokia emoten jakin daualako, beste inok baino lehenago, gehiago eta hobeto.

Eta bestetik, azken berrogei urteotan beste noren euskerea izan dogu hemen irakurriago edo, behinik behin, entzunago? Hizkera argia, gehiegikeria bako garbia, zuzena, arau zehatzez ondo hornitua, zentzun handiz landua eta txukuna, gure herriak egunero ahotan erabilten dauan berbetatik hur-hurrekoa... Gogoangarriak dira, duda barik, gure idazle “klasikoen lanak”, hori ezin ginei ukatu. Baina euron artean, zeinek izan dau bizkaitarron gogo-bihotzetan



Musikan ez ezik, olerkigintzan eta izadiarekiko maitasunean ere erakutsi zuen Kerxetak bere sentiberatasuna lobekin egiten zituen mendi ibilaldietan.

Kerexetak ainako eragin luze ta sakonik?» (Karmelo Etxenagusia, *Euskera*-XLIV-1999, 1).

Kanpai-otsa torrean:
Norbait il da, itxuraz.
Txoriak ixil mutu,
Otsaren durundaz.

Erritarrak erreguz;
Etxandrak, itaunez:
«Nor il da»? Ta guztiak:
«Kalean, inor ez».

Ez dakie nor il dan;
Iñor geisorik bai?
Ez egin jaramonik
Erriko kanpiai!

Baiña areik, astiro,
Din-daun diardue:
Eguneko egia
Eurak dirautsue.

Ekin gogor, kanpaiok;
Zabal gure ituna!
Gaur goizeon il baita
Biren maitasuna!

(*Bitargi*, 26. orrian)



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Jaime Kerexetaren familia.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko maiatza

Ale-kopurua: 2.800

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Argazkilaria: Joseba Olalde

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1691-3 (Obra osoa)
84-457-1693-X

L.G.: BI-1329-01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística